

Fitxak Altxa Mutillatik ateratuak

Mutillak

Itsas gazteriaren aldizkaria • Le magazine des jeunes pêcheurs basques

Arrainek jendartea atzarrazten dute !

Itsasoko kutsadurari buruzko ibilbide pedagogikoa

So egin/behatu, ulertu, ekintzak preziatu, itsasoaz gogoetak egin, gure ohidurak eta jarrerak aldatu.



AMETSA ALA ERREALITATEA?
ZUEN ESKU DA!

Erakusketa Altxa Mutillatik ateratua

Altxa! Mutillak n° 7

Itsas gazteriaren aldizkaria • Le magazine des jeunes pêcheurs basques

Arrainek jendartea atzarrazten dute !

Itsasoa, guztion ondarea da : entzuten ote dugu haren deia ?
Ala segituko dugu gure buruari erraiten : "ixo eta igerika segi !"




Arrainen manifa. Legatzaren eskakizuna



“Sarraski hau geldia-razi behar da ! Lurra etengabe garbitzen ari zarete. Ederki ! Baina iduri luke itsasoa zabortegi daukazuela! Pentsa ezazue : eman dezagun zuek urteetan auskarki eta gostuan botatzen dizkiguzuen

zikinkeria eta isurki mota guziak buru gainera heldu zaizkizuela. Zer eginen zenukete ?”

Itsasoko arrainek izenpetua.



■ Lurra
 ■ Itsasoa
 ■ Marea beltza
 ■ Aire

Itsasoko kutsaduraren %75 lurretik dator.

Dudarik gabe urrunago ez gaitezke joan : ez dezakegu edozein gauza egin itsasoan, ez erreketan, ez eta itsas bazterretan, lehorrean ere ez.

Ingurumen arazoak denenak dira !

Itsas bazterrak eta itsas urdin zabalak ezin dute gehiago jasan !



Hondakinek itsasoan biodegradatzeko behar duten denbora

2-4
aste

komunetako papera

kazetak

6
aste

kartoizko
kutxak

esne
kutxa

1-5
hilabete

sagar
hondarra

kotoizko
eskularrua

3-14
hilabete

kotoizko
soka

gainazalak

supiztekoak

argazki
degradagarriak

xatar
biodegradagarria

1-3
urte

zura eta zur
herrosatua

zigarreta
punta

artilezko
eskularrua

13
urte

zur tintatua

50
urte

kontserba
ontziak

poliestirenozko
ontziak

poliestirenozko buiak

80 urte

aluminioa
eta
merkurioa

200 urte

400-450
urte

botatzeko
xatakk,
tanpoiak,
konpresak...

plastikoak

600 urte

arrantzako hari
eta sareak (nylona)

berina

zenbat denbora
ez dakigu !

Alto!
Mutillak
Itsas gazteraren aldizkaria
Magazine des jeunes pêcheurs basques

So egin/Behatu

Lekukotasun bat argazkitan

**Adeli elkarteko Manaik Rivière-k egina
2000-2001ean.**



*Maitea... Zu baizik ez
genuen lur honetan !*

*Ez gaitzazula jende hotz
bilakatzera utz...*

*Eskuak zabal eta salba
gaitzazu."*

(Jacques Prévert)



Lapurdiko hondartzetan bildu zaborrak

So egin/Behatu




Itsasoko kutsadurak lekuko anitz badu : arrantzaleak, arrainak, itsaskiak, landareak, guhaur.

Zetazeoak itsasoko kutsaduraren eta hondamenaren lekukoak dira.



Ostrak izariz ttipiak izanik ere, bakterio eta kimiko kutsaduraren lekuko handiak dira itsasoaren egiazko iragazkiak baitira.

"Bloom algal": eutrofizazioa edo uraren minbizia Itsas-belar gehiegi erreketan : nitratoa hondoraino.



Udaberriaren bukaeran edo udan, itsas-belarrez osatu mendiak agertzen dira. "Bloom Algal" deitzen den hori hiru arrazoi nagusirengatik gertatzen da:

- ura berotzen da,
- eguzkia azkarrago da,
- erreketatik itsasora heldu den ura nitratoz eta fosforoz betea da.

Fosforoaren %33 detergenteetatik dator, %28 metaboliko hondakinetatik (urea, gorotza), %18 laborantzan gehiegi erabili ongarrietatik, baita ere %13 abelazkuntzatik eta %6 industriatik. Ongarri eragina du. Itsas belarrek urean dagoen oxigeno guziaz hartzen dute eta usteltzen direnean, oxigeno anitz behar dute oraino desegiteko.

Kutsadura eta itsasoko baliabideak

Mementoko, zientzialariek ezin dute zehazki frogatu zer den itsas gaineko edo sakoneko kutsaduraren eta itsasoko baliabideen arteko lotura. Noiztenka aldatzen diren fenomenoei oharitzen dira eta galderak egiten dituzte.

Itsas elika-katea deiadarka

Lau maila : itsaspea, **fitoplantona** (*landare bizitza, belarrak*) sortzen dituen **sedimentazioa**, honek hazten duen **zooplanktona** (*mikro-organismo bizidunak*), **arrainen** elikaduraren iturria delarik.

ELIKA_KATE SANO



ELIKA_KATE ALDATUA !



Batuketa honek zer ondorio du ?

Metal astunak + parasito-hozia + kimiko kutsagarriak + plastikoak + ur gazia + tenperatura = X

"arrain zopa" baino, "bakterio hazkuntza" !

Ulertu

Kutsadurak hiru familia handi ditu.
Itsas-bazterrak kutsadura anitz jasaten du.
Denak lehorrean eta itsasoan ageri dira:

1 Makro hondakinak :
hondartzetan eta itsaso gainean ikusten ditugun gauzak dira.

**2 Kutsadura bakterio-
logikoa edo mikro-
biologikoa :** gorotzetan,
pizorretan, jalkinetan,
tratatu gabeko edo gaizki
saneatu hondakin-uretan
dauden bakterioz edo hoziz osatua da.


3 Kutsadura kimikoa eta toxikoa, txarrenetarikoa, eta biziarentzat arrisku handikoa dena. Transformazio genetikoak, minbizia bezelako eritasun larriak eta ekosistemaren aldaketa erradikala ekartzen ditu. Hiru mota badira :

■ Sintesizko osagai-organikoak : detergenteak, garbitzeko produktoak, pestizidoak, belar-pozoiak, PCB, DDT.

■ Burdinki astunak : pinturetan, antifouling-etan, herdoilaren kontrako produktuetan, edo piletan dagoen merkurioan agertzen direnak.

■ Nitratuak eta fosfatoak.

Produktu kutsagarri guzi horiek ureko espezieetan metatzen dira eta mehatxu serioa sortzen ekosistemarentzat (biometatzea).



Ulertu

Itsasotik datorren kutsadura.







Euskal kostaldea Bizkaiko Golkoaren biltegia da.


200 tona urteka eta kilometroka (orotara 5.000 T) hondakin biltzen dira, Euskal kostaldeko hondartzetatik eta 84 tona urteka eta kilometroka, (orotara 9.000 tona urtean) Landesetakoetatik.

Itsaslasterren mapari behatuz, ageri da Bizkaiko Golkoaren hegoaldera eta bereziki gure herrialdera heldu direla zikinkeria guztiak, funil batetik sartzen balira bezala. Oinarrizko ezaugarria : itsaslaster nagusiak (Portugaleko itsaslastera deitzen dena eta 1986an aurkitu zena) Kantabriako itsasertzeko urak erakartzen ditu mendebaldetik ekialdera, itsasertzeko sasi-hondakintegietatik datozen hondakinez kargaturik ; 1986an Koruñan gertatua har dezagun adibidetzat, 100.000 tona hondakinez osatu mendi bat hondaratu baitzen itsasoan.

Itsasoak kutsadura hedatzen du arrain batetik bestera eta arrainetik jendera. 200 produktu kimiko kutsagarri osatu zerrenda bada. Haien molekulen bizi-iraupena hogeitau urtekoa da. Aurkitzen ditugu Antarttikoko pinguino-papozurietan, Mediterraneoko lupinetan edota Bizkaiko Golkoko ugaztunen sabelean. Gaur egun ikertzen da lekuko eta auzoko kostaldeetako kutsadura kimikoen ibilbidea.



-  Portugaleko itsas laster nagusia
-  Udako Itsas Laster nagusia
-  Neguko Itsas Laster nagusia
-  Itsas Bazterrak
-  Mendebaleko haize nagusiak
-  Kutsaduraren metatzea



Ulertu

Lurretik datorren kutsadura

Itsasoko kutsaduraren %75 lurretik dator, bereziki egun guzietan etxeetan sortzen dugunarengatik. Gure lurraldea errekez eta ibaiez josia da, hauek dute nagusiki kutsadura garraiatzen. Gure hondartzetako kutsadura bakteriologiko guzia ibai-ahoe-tatik, erreketatik eta lehorrean ditugun jokamoldeetatik dator.



**Tren baten pare,
ibai-errekek
herriz-herri**

**biltzen dituzte zikinkeria
mota guziak, kutsadura zama gainean
hartuz, menditik itsasoraino.**

**Errazu zer aurtikitzen duzun eta
erranen dizut nor zaren**

**Itsas hegia : lehorrean eta itsasoaren arteko tanpoia.
Udan, jendetza izigarria.**

Ingurumenari kasurik egin gabe, auzotegiak nonahi eraikiz egin da kostaldeko hirigintza. Hiri kontzentrazio azkarra dago kostaldean, artisau eta industria guneez osaturik. Jendetza bikoizten edo hiru-koizten du udako turismoak.



Ulertu

Atmosfera kutsadura larriagotzen ari da

1986ko apirilaren 26an Txernobilen gertatu nuklear istripua denek gogoan dugu ; ondorio erradioaktibo baten bitartez airea kutsatu zuen, minbizi, tifoido eta leuzemia kasuak erakarriz.



Berotegi efektua eta berotzea

Lur planetan bizia mantentzen da gure gainean den estalgi naturalari esker. "Berotegi efektua" deitzen dugu.


Baina gaur egun, jendearen ekintzen ondorioz berotegi efektua ez da gehiago normala. CO₂, CH₄ gasak...

atmosfera biltzen dira eta halako "ezkila" moldatzen dute. Erradiazio termikoa zepoan harrapaturik dago atmosfera azpian eta ez da airatzen. Horren ondorioz, Lur planeta gero eta gehiago berotzen da: azken bi mende hauetan , 0,3°tik 0,6°Cra berotu da lurra. XX. mendean itsasoaren maila 10-20 cm-z goratu da.

Ozono-geruza

Troposferoan, atmosferaren beheko aldean den CO₂ ozono-geruzak (lurretik 25 kilometrora) bizidunak erradiazio ultramoreetatik babesten ditu. Aerosolen eta hozkailuen gasek, N₂O, protoxido azoteak,...

ozono geruza zilatzen dute Antartiko gainean, gure osagarria arriskuan emanaz.



Arrazoi nagusia, jendearen bizimoldea da !



Ur-lasterrak, erre-
kak, euria... ez
dira kutsadura-
ren eragileak,
baina bai
hedatzaileak
eta larriago-
tz a i l e a k .
Arrazoi nagusia
jendartearen
eskutik dator,
batez ere haren
bizi-modutik !
Kutsatzailea jendea
da. Bere bizi edo
ekoizpen moduen
izenean, ez duen
eskubide batez
jabetzen da,
errekak eta
itsasoak arris-
kuan jarritz, eta
ondorioz itsas-
landareak baita
itsas-animaleak
ere.

Ekintzak preziatu

Ulertu dugun bezala, dena itsasoan bukatzen denez, kutsaduraren kontrako edozein ekintza onuragarria zaio.

Norberaren ekintza saneatze katearen hastapenean da

Kutsaduraren gutitzeko edo ezabatzeke lehen aterabidea : bakoitzak bere etxeko zaborrarei, industriako edo laborantzako hondakinei kasu eman. Planetako kutsatzaile haundiena jendartea baita, hots guhaur, lehenik hazta dezagun gure eginkizunen ondorioa, informazioak eskuratuz, inguramenari buruzko kulturaz jabetuz eta arduratsuago egiten gaituen bizi etika hartuz.

Zergak pagatzen dituztenak dira finantza-partzuer nagusiak, ur eta bide-saneatze lanak ordaintzen dituztenez geroz.


Herritarrek ingurumena zaintzen ahal dute hauteskundearen karietara ere, hautagaiak uraren kaliteaz dituzten proiektuen arabera hautatuz.

Kontsumitzaileek kutsatzen dute baina inguramenaren aldeko langile bihur daitezke ahal bezain guti eta ahal bezain ongi erosiz.

2000. urteaz geroztik, epe luzeko obra handiak abiatu dituzte agintariak, **Estatuaren eta Lurraldearen** arteko hitzarmenen eta saneatze-eskema kolektibo bidez.

2005 urteko epea emana zen ohiko zabortegien hesteko. **"Lurperatze Zentro Teknikoetan"** azken hondakinak baizik ez dira onartuko. Ekohiritartasunaren bidez, geroko belaunaldiak kontuan hartzen dira : "Ondarea ez dugu burasoengandik eskuratzen baizik eta hurrei mailegutzen." Aterabideak "Garapen iraunkor, jasangarri" eta arduratsutik heldu dira.

Birziklatzea funtsezko aukera



Ekintzak preziatu




Hondakin-uren saneatzea :

Frantzia, urari buruzko legea (1992ko urtarrilaren 3koa, 1994ko ekainaren 3ko 94-469 dekretua), hondakin-uren saneatzearen frantses araubidearen zutabea da. Hondakin-uren, euri-uren eta ur-erreken saneatzeko sorrera eman die, Uren kudeaketan eta antolaketaren gida-eskema baten inguruan.

Obrak bi motatakoak dira : lotura kolektiboa euri-uren, hondakin-uren eta ur-gazituen (kloroa) arteko sare banatzailearekin eta araztegietan egiten den tratamendua.

“Agglomerazio Itunez” gain, badira

“Erreken Itunak”. 2005era ko, udaletxe guzietan ur-zikinak, euri-urak eta itsasoko urak bereizi behar dituzte. Urari buruzko nazioarteko legearen arabera, isurketa toxikoak eta etxe-ur zikinen isurketa salbaiak debekatuak dira.



Bidasoa-Txingudi Konsortzioaren eragin baikorra azpimarratzekoa da : Hendaia, Hondarribia eta Irun herrietako hondakinen tratatzeko aterabidea elkarrekin finkatu dute.

Ekintzak preziatu

"Itsas garbia, Mer Propre - Hondakinak lehorrera"



Itsasoa arintzen duten egintza zenbait !

1996an, iparraldean Itsas Gazteria elkarteko arrantzale gazteek eta hegoaldean Euskadiko Itsas Gaztediakok, "Zaborrak lehorrera" izeneko kanpaina abiatu zuten.


Helburua : itsasontzi barneko bizimoldeak sortzen dituen eta arrantza tresnek harrapatzen dituzten hondakinak

(zaborrak) bildu. Bilbotik Arcachon arteko itsasontzi guzien esku eman ziren. 400 zikinontzi (150 Akitanian, 250 Gipuzkoa eta Bizkaian), bai eta pilak biltzeko kutxak eta boltsak. Itsas Gazteriak orotara 20 000 boltsa banatu zituen. Elkarte horretako kide batek egintzak koordinatu zituen, arrantzaleen ohituren aldarazteko, inguramen axola duten gazteen mobilisatzeko eta mugazgandiko arrantzaleekin lan egiteko.

Ekitaldia aitzina doa.



Kimika kutsaduraren aurkako jarduerak



Lurrean :

1975eko uztailaren 15eko legeaz geroztik, enpresak beren hondakinez osoki arduradun dira, ("kutsatzaile-ordaintzaile" printzipioaren arabera). 1997/07/13ko dekretuak eta 1995/04/13ko zirkularrak gainazalen birziklatzera behartzen dute. Hemendik goiti, industriak ez du ekologia baztertzen ahalko. Jasangaitza den zama baino, xantza gisa zaie industrialei. ISO ereduak, inguramenaren errespetua bermatzen du, bai eta ura araztegi batean

tratatzeara. Bere ekoizpenak goitik behera ibilbide horretan jarraikiaraziz, enpresak administrazioaren laguntza lortzen du.

Itsasoan :

Itsasoko kutsadura kimikoari buruzko frantses eta Europar araudiak zer diote?

Departamenduko osasun araudiaren zati baten arabera (1978-08-09ko zirkularra, 90 art.), debekatua da solido eta likido toxikoen eta orokorki osagarriari kalte egiten duten hondarren botatzera itsasora, ibai-erreketa, aintziretara, ur-geldietara, ubideetara, ibaiertzetara, bai eta lur azpiko uretara.



1989ko martxoaren 24an, Alaskan, 42.000 tona petrolio gordinek itsasertzeko 500 km kutsatu zituzten, EXXON Valdez urperatzearen ondorioz. Estatu Batuek urte bat geroago sortu dute OPA, Oil Pollution Act : eraikuntzako eta segurtasuneko arauak errespetatzen ez dituen petroleo-ontzi oro ez da Amerikar portuetara sartzen. Diruaren aldetik bateratua, baina politikoki anitza den Europak ez du arau horren aplikaraztea lortzen, nahiz eta petrolio-ontziak erregulariki urperatzen diren. Erika eta Prestigen urperatzearen ondotik Europak araudi berriak onartuko ditu: petrolio-ontzien kaskoen indartzea eta itsas hegietan babes tokiak apailatzea.

Itsasoaz gogoetak egin

itsas azalean



itsas zolan



Itsasoa, nazioarteko gunea, finantza korrontek funditua.

Zama ontziak azpi sare batean harrapatuak dira eta itsasoa kutsatzen dutenek joko errexa dute : "Atsegineko banderak" baliatuz, armadoreek salerospenak merkeago egiten dituzte. Haien arrangura bakarra probetxua da, jendearen eta naturaren kaltetan. Urtero 2 milioi tona hidrokarburu itsasora ixurtzen dira ontzien garbiketen ondotik. Marea beltzen ondorioz milaka xori eta arrain hiltzen dira eta itsas zolako eta hegiko ekosistema andeatzen.

Marea Beltz Batzuen Zerrenda

Ontzigtzearen urtea	Ontziaren izena	Ontziaren bandera	Eremu kutsatua	Zenbat tona ixuria
2002	PRESTIGE	BAHAMAS*	Galiciatik Charenteraino	77.000 t
2000	IEVOLI SUN	ITALIE	Cotentin, (kimika)	6.000 t
1999	ERIKA	MALTE*	Bretagne/Loire Atlantique Vendée/Charente	20.000 t
1997	BONA FULMAR	BAHAMAS*	Dunkerque	6.800 t
1996	SEA EMPRESS	LIBERIA*	Pays de Galles	72.600 t
1993	BRAER	LIBERIA*	Iles Shetlands	85.000 t
1993	LYRIA		Provence	2.200 t
1992	AEGEAN SEA	GRECE	Galice	74.490 t
1989	EXXON VALDES	U S A	Alaska	40.000 t
1989	KHARG - 5	IRAN	Safi / Maroc	70.000 t
1989	ARAGON	ESPAGNE	Madère / Portugal	25.000 t
1988	AMAZZONE	ITALIE	Finistère (Bretagne)	2.000 t
1983	CASTILLO DE BELLVER	ESPAGNE	Cap (Afrique du Sud)	250.000 t
1980	TANIO	MADAGASCAR	Finistère (Bretagne)	26.000 t
1979	GINO		Nord Finistère (Bretagne)	26.000 t
1978	AMOCO CADIZ	LIBERIA*	Cornouailles (Bretagne)	219.000 t
1977	HAWAIIAN PACIFIC	LIBERIA*	Océan Pacifique	99.000 t
1976	URQUIOLA	ESPAGNE	La Coruna (Galice)	95.700 t
1975	JACOB MAERSK	DANEMARK	Portugal	82.500 t
1967	TORREY CANYON	LIBERIA*	Cornouailles (Bretagne)	129.800 t

*Atsegineko bandera



Total-Fina frantses taldeak du Erika ontzia pleitatu. Italiar sozietate azpi-tratatzaile baten esku zen itsasontzia. Artekariak bere helbide-soziala Ingalaterran zeukan. Maltekin azpi-tratatzen zuen greziar sozietate batek armatua zuen itsasontzia. Indiakoa zen eskifaia eta atsegineko bandera maltiarra. 24 urte barne, zazpi aldiz izenez aldatu da, kudeatzailez bederatzi aldiz eta banderaz bost aldiz.

Gure ohidurak eta jarrerak aldatu

Pentsamoldez eta ohidurez aldatu.

6 jarrera edo pentsaera egoki :

- 1 Guhaurengandik hasi behar gara.
- 2 Ekoiztu, jardun, indarrean den legedia errespetatu.
- 3 Norbera baino beherago denaz arduratzeko ohidura hartu. Adi egon eta ingurukoak argitu.
- 4 Globalki pentsatu eta nork bere tokian jokatu. Globalki lan egin eta tokian berean pentsatu.
- 5 Norberak bi galdera hauei erantzun:
"Zer diot itsasoaz eta ibaietat ?"
"Zergatik ondare publiko honetaz axolagabe gara ?"
- 6 "Itsasoa eta lurra ez ditugu burasoengandik eskuratzen, baizik eta hurrei mailegutzen"



Gure ohidurak eta jarrerak aldatu Axolagabekeriaz kutsadura

iraunarazten duten 6 jarrera :



- 1 Itsas eta ibaien kutsadura ez da ene arazoa !
- 2 Ni ez naiz hobendun, besteengatik da !
- 3 Itsasoan eta erreketan betidanik kutsadura izan da !
- 4 Arazo larria da baina hobe isiltzea !
- 5 Ageri bat, ikerketa bat, batzorde bat egin dezagun itsasoaren salbatzeko... Neurri zehatzak gero ikusiko !
- 6 Kutsadura baino arazo larriagoak ere badira munduan : langabezia, gosetea....



Gure ohidurak eta jarrerak aldatu

Hizkuntza bikoitza, inkoherentzia eta erresistentzia.



Sekulako arroila badago hitzen eta ekintzen artean : batetik, munduko agintariek diote planeta hau salbatu nahi dutela eta bestetik, multinazional konpainiei ekartzen diete baldintzagabeko sustengua. Kutsatzeko makinaren geldiaraztea nehorik ez du lortu. 1988az geroztik, 3.000 zientzialari (GIEC) klimaren aldaketak ikertzen ari dira. 2005garren urtean 25 miliar gas karboniko tona hedatu dira munduan zehar! Hola segituz, 50 miliar 2050. urtean! 30 urte hauetan, Nazio Batuetako adar bat den munduko meteo erakundea (OMM) deiadarka dabil berotegi efektuaz eta honen ondorio latzez : uholdeak, itsasoaren goratzea (Bangladesh, New Orléans),

idortekak (basomortuak 6 km urtero irabazten ditu Niger aldean), goseteak, paludismoa...


KIOTOKO ITUNA ; 1997ko abenduaren 11n, 106 herrik itun bat izenpetu zuten Kyoton, (Japonian). Zientzialariek eskatu zuten CO₂ eta CH₄ gasen ekoizpena bederen erdiz murriztea, gure planetaren berotze beldurgarriaren geldiarazteko. Egiazki, itun hau Europa Batuak 2002 urtean baizik ez du onartu (2005ean gauzatzekotan) eta Errusiak, berriz, 2005ean du onartu ! Munduko gaz igortzaile handienak izanik ere (%25) Ameriketako Estatu Batuak ez dute oraino izenpetu. Ekonomiaren interesak lehen !

Alabaina, Montrealeko konferentzian (2005. urtean), baieztatua izan da Herriek eta Lantegiek kutsatzeko kotak badituztela. Kota horiek merkatuko balio bilakatzen dira; kutsatzeko baimenak (karbono kreditoa) sal eta eros daitezke. Frantziak 2010. urterako 1990.eko gaz igorpenaren heina ez du gainditu behar.

Gutarik bakoitzak badu boterea, produktu baten erosteko edo uzteko ahala baliatuz ; horra hor denda-orgatxoaren iraultza isila eta eraginkorra ! Zenbat konsumitzen, hainbat kutsatzen !

Planetaren salbatzeko behar-gorria, jendea eta izadia errespetatuz

Rioko jardunaldien ondotik (1992), Brundtland batzordeak aurkeztu duen **"garapen jasangarriaren"** kontzeptua zabaldu da. Inguramenaren eta garapenaren etika pixkanaka gauzatzen ari da. Garapen jasangarria munduko etikaren heinera altxatuz, dugu jendearen biziraupena segurtatuko. Gobernuak kanpoko erakunde gehienak eta erlijioak mugimendu honen eragile eta eramaileak dira ; mugimendu honek ondorio onak utziko ditu hain segur. Hirugarren milenaria markatuko du : **planeta salbatuz, gizon-emazteak salbatu.**



Zergatik baitezpadakoa da itsasoaren errespetatzea, Legatzaren eskaera onestea ?

Itsasoa ondasun unibertsala da, planetaren birika, oxigenoaren bi-herenak eskaintzen baitizkio. Planeta %75 urez osatua da. Itsasotik jalgitzen da bizia ! Itsasoaren barnean biziaren antolaketa mehatxatua baldin bada, gizon-emazteak galduak dira ! Uste den bezala, mende honen bukaeran Lurreko temperatura 4 gradoz goratzen balinbada, Ipar eta Hegoko izotz eremuak ur daitezke, itsasoa 70 metroz goratuz eta ondorioz kontinente guzietan milaka hiri eta eskualde osoak desagerraraziz. Makurra egina da baina planeta osoaren hondamenetik salba gaitzke, gure bizi moldeak oraindanik kanbiatuz.

Askatasun eta komunikazio gune zabala, mundua mundu denetik, zibilizazio eta populuen arteko harremanak errazten dituena, Itsasoa ederra da baina minbera : jendarteari galdetzen dio jarrera zikoitza ez ukaitea, ez eta harrapari salbaiarena, baizik eta eginmolde arduratsua, ahaidetasun sakon bat bezala, belaunaldiz belaunaldi.

Basamortu bat edo elurrez estali mendi gailur bat bezala, oihan eta aintzira handiak bezala, itsas-zabala biziaren ikas toki bat da, ispiritualtasunaren gunea. Itsasgizonak itsasoaren edertasuna eta zailtasuna, xumetasuna eta handitasuna, haurridetasuna eta kuraia, umiltasuna eta norberarekiko baita besteekiko egia ikasteko gunea dauka. Bretoi eta euskal esaera batek dio : "Otoitz egiten ikasi nahi baduzu, zoaz itsasora."

Mikel Epalza



*Textoa: Mikel Epalza
Itzulpen lana: Argitxu Uhalde, Gexan Alfaro,
Mikel Epalza, IKAs en laguntzarekin
Marrazkiak: Marko Armspach*



AMETSA ALA ERREALITATEA ?
ZUEN ESKU DA !